

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

296 - 2021eko azaroa

BATERIAREN BURRUNBA MAITATZEN





POSTONTZIA

- ✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?
- ✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteren bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: mailope@labrit.net / 638 652 339.



**aseguru
gintza
XXI**

**ASEGURU
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna
babesteko modu bakarra
behar bezela aseguratua
egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



**Construcciones
Gañarbe**

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri

📧 construccionesganarbe@gmail.com

☎ 616 457 540

☎ 636 827 846

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Maillope Kultur Elkarte.

L.G.: NA 719/93

Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzia eta esanenen erantzukizunik.

issuu.com/maillopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK:

Labrit, Ondare Kultur Taldea, Lekunberriko Udala, Igor de Castro, Arantza Santesteban, Igor Otermin, Larraungo Udala, Juan Antonio Garaikoetxea, Nafarroako Bertsozale Elkarte.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - maillope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:

Araitz Amatria.

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

LABRIT
MULTIMEDIA

04

KUXKUXEAN Azaroko zorion agurrak.

08

ELKARRIZKETA



Igor de Castro.

12

IZAN GAZTE 'Escape room', Betelun eta Lekunberrin.

14

BATZARRE Lurraren emankortasunarekin lotutako ikastaroak.

16

ERREPORTAJEA



Arantza Santestebanen film laburra.

22

ERREPORTAJETXOA Lekunberriko festak.

28

PLAZATIK PLAZARA Gotzone Sestorainekin solasaldia.

31

AGENDA




Haizea Garmendia Aristi

Azaroaren 9an, 2 urte.
Zorionak, ttikitina!!!
Segi holaxe, alai-alai, sorgiñ
sorgiñ!
Muxu handi bat etxekon
partez!


Ibai Eraso Gorrotxategi

Irailaren 22an, 10 urte.

Lander Eraso Gorrotxategi

Urriaren 21ean, 12 urte.

Zorionak, bikote! Askok gozatu zuen
eguna, eta muxu erraldoi bana
etxekoen partez!


Aner Elordi Saralegui

Urriaren 26an, 2 urte.
Zorionak, pottoko! Muxu
handi bat etxekoen partez!


Luar eta Laida Vicente Alkorta

Urriaren 25ean, Luarrek 11 urte
bete zituen, eta urriaren 31n,
Laidak 14.

Zorionak bioi etxekoen partetik!! Hi-
labete gogorak izan dira denontzat;
amona Kontxik utzi egin gaituen
arren, berak badaki dagoen lekura
joango ginatkeela oinez, hegan,
zaldiz zein bizikletaz!! Segi beti
bezain jator, neskak!!
Muxu bana, polittak!!


Egoi Apezetxea Gabari

Azaroaren 21ean, 7 urte
Zorionak, artista! Oso ongi
pasa zure egunean! Askok
maite zaitugu! Musu han-
di bat etxekoen partez!


Oihan Barandarain Mitxaus

Azaroaren 20an, 4 urte.
Zorionak, politte! Segi beti
bezala etxekoei irrifarrak atera-
tzen. Muxutxo handi bat.


Laida Garmendia Huarte

Azaroaren 8an, 11 urte
Etxeko txikia nola haunditu zaigun!
Egun polita pasa, eta ongi ospatu!
Muxu handi bat etxekoen partez.


Luka Soria Iriarte

Azaroak 23an, 3 urte
Zorionak, maitia! Askok disfrutatu zure
egunaz, eta besarkada handi-handi
bat zure familia osoaren partez. Askok
maite zaitugu. Aita, ama eta Iria.

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



SUTEA GALBURU OKINDEGIAN

Galburu okindegian sute bat piztu zen urriaren 7an, baina, suhiltzaileek egiaztatu zutenez, eraikineko egurrezko habe handi batzuk denbora batez egon ziren sutan lehenagotik, tximiniatik edo labetik ateratako beroak eraginda, eta hainbat horma hautsi behar izan zituzten habeetara ailegatu eta sua itzaltzeko. Tenperatura altuak ondoko eraikinari eragin zion, zortzi etxebizitzakoa, eta horietako batean koltxoi bat erre zen.



BIDEA BERRITZEKO LANAK BETELUN

Herri barruko bide bat berritzeko lanetan aritu dira Betelun. Zehazki, Poxteneaa bideko aldapa berri du Beteluko Udalak, eta, obra horiek burututa, alde horretan bizi diren bizilagunak errazago eta erosoago joan ahalko dira beren etxeetara. Horrez gain, Beteluko eskolako sarreran dagoen barandari, aldapan dagoenari, barra bat erantsi diote, seguruagoa izan dadin.



ANTZERKI TAILERRA ABIAN

Azaroaren 6tik maiatzaren 28ra, antzerki tailerra izango da Txiki-parken. Marta Oyarzabalek gidatuko du, eta haurrei, nerabeei nahiz helduei zuzenduta dago. Larunbat goizetan izango da: helduak (>18) 11:15etik 12:15era; haurrak (8-12) 12:15etik 13:15era; nerabeak (13-18) 13:15etik 14:15era. Izena emateko: 948 604 582 edo mitxausenea@yahoo.es.

► Joritz Otermin (Azkarate)



*Hola jarraituz gero
nolako mundua
Emango du bai lurra
errautsen putzua
Enpresa erraldioen
barne deabrua
Goikoak opa digu
etorkizun antzua*

*Zikinkeria besterik
ez baitegu sortzen
Ingurumena oso
osorik zakartzen
Ibai eta mendiak
desastroso uzten
Naturari ai gera
K.O bat ematen*

*Urtez urte ditugu
hainbat desastre
Intsektu plaga eta
virus peceerre
Gu esklabuak gera
esana legoke
Naturak agintzen du
gogora zaitzte*

*Ondoren datorrenai
egin apostua
Ea kunplitzen duen
ne desafiyua
Botatzen duen ere
kategorikua
Heldu iezaiozu, Jon!
Hortxe testigua*

KIROL MANKOMUNITATEKO TEKNIKARIA MODU IRREGULARREAN KONTRATATU ZUEN LEHENDAKARIAK ORAIN BI URTE ETA EGOERA KONPONDU GABE JARRAITZEN DU

Legealdi hasieran, Lekunberriko Taldeko kide den Joseba Ordokik Kirol Mankomunitateko lehendakaritza postua hartu zuen. Garai hartan teknikariaren lanpostua betetzeko beharra sortu zen, eta oposizio-lehiaketan parte hartu zuten hautagaiekin hitz egin ondoren, denek uko egin zioten. Egoera horretan, eta kontuan hartu gabe Kirol Mankomunitateko teknikaria lehiaketa-oposizio bidez kontratatu beharra dagoela, Mankomunitateko lehendakariak zuzenean agindu zuen gaur egun dagoen teknikaria kontratatzea. Horrek urratu egin dituzten lanpostu publiko bat betetzeko oinarriko printzipioak: berdintasuna, gaitasuna eta merezimendua.

Kontratazioak egiteko, Mankomunitateko idazkariari dagokio txosten bat egitea eta legezko irtenbideak proposatzea, baina idazkariari txostenik eskatu gabe eta Mankomunitateko Batzarra osatzen dugun udal ordezkariari inoren curriculumik erakutsi gabe, lehendakariak aurrera egin zuen eta kontratazio irregular bat egin. Horri lotuta, gerora jakin dugu, gainera, pertsona horrek ez duela C mailako titulurik hizkuntza-eskakizunean, eta ez du behar den mailarik euskarazko zerbitzua emateko.

Bi urte pasatu ditugu egoera horretan, eta Mankomunitateko Batzarra osatzen dugun kideok behin baino gehiagotan kargu hartu diogu jokabide hori dela eta. Espero dugu luze gabe egoera konpontzeko bideak jartzea eta kontratazio irregular hau bukatzea. Mankomunitatea osatzen dugun udal ordezkariok konpromisoa dugu jardunbide irregularrak bukarazteko, eta lanean jarraituko dugu Mankomunitate ireki eta garden baten alde.

Nerea Martiarena, Araizko Udaleko zinegotzia
Igor Otermin, Beteluko Udaleko zinegotzia
Xabi Azpirotz, Larraungo Udaleko zinegotzia
Arkaitz Goikoetxea, Lekunberriko Udaleko zinegotzia

LEKUNBERRIKO ERREKAREN INGURUAN "ASTAKERIA"

Erreka inguruak garbitzeko aitzakiarekin, zuhaitz handi, zuhaixka, sastraka eta landarediaren zati handi bat desagerrarazi egin dute, eta elementu horiek guztiak ezinbestekoak dira erreka-erregimenaren osasuntsu egon dadin. Horretaz gain, berezko babes sistema gisa funtzionatzen dute uholdeen aurka. Oso larria iruditzen zaigu gertatu dena, eta erantzukizunak argitu egin behar direla uste dugu.

Ura eta Lurra Ekimena



Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.

Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

AMAIURU BAR

GTXGKO PIZZAK,
KOPA BERGIZIAK
948504352

ALIPROX
Lekunberri
janaridenda

hamabostaldi
eskaintza bereziak

CONSTRUCCIONES

ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK
FATXADAK
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri

HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAK HEZKUNTZA ITUNAREKIN ERE GUTXIETSI EGITEN GAITU

Nafarroan Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko Ituna betetzen den aztertzeke eta honen jarraipena egiteko atzo egin genuen bilera hitzarmena sinatu genuen sindikatuok -LAB, Steilas, AFAPNA, ANPE, CCOO eta UGT- eta Nafarroako Gobernuak. Bilera hau eta gero salatu nahi dugu Hezkuntza Departamentuak, beste behin ere, gutxietsi egiten gaituela hezkuntza kalitatea eta irakasleen lan-baldintza duinak bermatzeko oso garrantzitsuak diren aferak sindikatuekin negoziatzeko biderik ez baitu ematen.

Ulertezina da Departamentuak Itunaren jarraipena egiteko proposatu duen egutegia, premiazko kontuak bukaerarako, edo lantzeko aurreikuspenik gabe, uzten dituelako; hau da, oraingoz ez dituzte mahai gainean jarriko benetan kalitateari eragiten dioten aferak eta partida ekonomikoa behar dutenak -ratioen berraztertzea edo irakasleen zuzeneko saioak gutxitzea, besteak beste-. LABen uste dugu datorren 2022ko aurrekontuen onarpena dela eta, egutegia erabat alderantziz egin beharko litzatekeela, aurrekontu-saila eta, beharrezkoa izanez gero, honen igoera eskatzen duten aferak lehenetsiz, aurrekontuak egiterakoan kontuan hartu ahal izateko.

Ez da Gimeno kontseilariak gutxiesten gaituen lehen aldia, ordea, irailean gauza bera gertatu baitzen lanaldi jarraituaren eta eskolaz kanpoko jardueren protokoloa ezartzean, non ez zen inorrek inongo elkarrizketarik ezta negoziatorik ere egon, eta non Covideko aitzakiapean irizpide pedagogikoak eta ikasleen osasun emozionala erabat alboratu ziren. Jarduteko modu honek argi erakusten du Gimeno hezkuntza-kalitatearekiko daukan erabateko arduragabekeria eta interes falta, eta bere jokamoldea errepikakorra bihurtzen ari bada ere, onartezintzat jotzen dugu. Ez dugu onartuko hezkuntza-arduradunek erabaki garrantzitsuak hartzen jarraitzea hezkuntza-komunitateko eragileak kontuan hartu gabe. Hezkuntza kontseilaria den aldetik, bere bete-beharren artean kalitatezko zerbitzu bat eskaintzea eta, horri begira, hezkuntza-komunitateko agenteekin hitz egitea eta negoziatzea ere badaude baina, tamalez, Gimeno behin eta berriz erakusten digun jarrerak ez du halakorik adierazten -atzoko bileran, adibidez, ez ziren ez bera, ezta zuzendari orokorra ere egon, honek erabaki garrantzitsuak hartzeko traba eta atzerapen handia suposatzen dituelarik-.

Gimeno jaunari gogorarazi nahi diogu Hezkuntza Ituna nahitaez bete beharrezkoa dela, Foru Gobernuak sinatu zuelako eta 2018-2022 urteetan gauzatzeko konpromisoa hartu zuelako. LABetik adi egongo gara eta mobilizatzen jarraituko dugu hala egin dezala exigitzeko.

LAB irakaskuntza

IRUÑEKO HILERRIAN

Uztailaren 20aren inguruan, Iruñeko hilerrian, gorpu baten laguntza egitea egokitu zitzaigun. Hildako emakumea, betidaniko euskalduna zen, frankismoaren garaian hizkuntza errepresioa jasan behar izan zuena, bere senarra (orain alarguna), erdi bertsolaria izandakoa da, bere ahizpa bat, bertsolari ezaguna hil zen arte, semea ere, oraingo bertsolaria da, alaba, bilobak, suhierrainak, familiakoak, lagunak, ezagunak eta abar ere, gehienak euskaldunak, hau da, euskaradunak, eta, euskaldunak ez direnak, seguru, euskaltzaleak.

Hala eta guztiz ere, ez genuen hitzik ere euskaraz entzun, apezaren ahotik; dena espainiera batuan, gurbian eta perfektuan esan zuen liturgiaburuak. Euskaraz, txintik ere ez, ezta silaba bakar bat ere!: ez kaixo, ez agur; ez aitaren, ez goian bego. Euskaldunok existituko ez bagina bezala tratatu gintuen, nahiz eta, han, jende asko, gure artean, euskaraz aritu ginen.

Iruñean, Nafarroako Erresumaren hiriburu izandakoan, euskaldunok mespretxatuak, zapalduak, ezkutatatuak, isilduak, ez ikusiak eta baztertuak izan ginen, horrela, gure iritzia eskatu eta galdetu ere egin gabe; era hartan jokatzeari, munduko gauzarik normalena eta naturalena balitz bezala. Era ofizialean, ekitaldi hartan, euskara eta euskaldunok ez ginen existitu. Euskaldunak hutsaren hurrengoa gara beraientzat, deus ez; batere hizkuntza eskubiderik ez dugunok.

Iseka handiagorako, esan beharra dago apez beltza zela, eta, honekin, ez dut inongo arrazarik mespretxatu nahi, guztiz alderantziz (hau, ozenki azpimarratu nahi dut, zer gerta ere!), kasu honetan, kritikatu nahi ditudanak dira, hain zuzen ere, Nafarroako Eliza eta bere elizbarrutia, halako bereizkeria egiteagatik bere eliztar euskaldun eta erdaldunen artean, alegia, erdaldunek Nafarroa osoan (Euskal Herri osoan) bermatua dutelako beti zerbitzua beren hizkuntzetan, frantsesez, espainieraz eta abarrez, baina, euskaldunok, ordea, ez! Eta Iruñeko Udalak ere, gai honetan, zeresan eta arduraren bat ere eduki beharko luke, ez da hala?, bera baita hilerria kudeatzen duena. Horretan datza, euskaldunon eta gainerakoen arteko aldea, tratuari dagokionez!

Gure kasuan, Nafarroako elizbarrutia, ederki-asko ahalegintzen da bere apez guztiak ongi formatzen espainieraren jakinduriaz, nahiz eta, batzuk, oso urrutitik etorriak izan, baina, euskaraz, aldiz, ez! Horrexegatik diot nik, mundu hau uzteko garaia iristen zaidanean, ez dudala utzi nahi nire gorpua elizaren atzaparretan, eta, askoz gutxiago oraindik, euskararen mespretxatzailea den elizbarruti honen esku hotzetan, hil ondoren, behintzat, ez jasateko berriro ere, bere arbuio gutxiesgarria.

Iruñeko hilerrian agurtu genuen emakumeak, txikitik, zapalkuntza eta inposizioa pairatu behar izan zituen bere hizkuntza eskubideetan, eta, bukaeran, hil ondoren, ere bai! Non uzten ote dute euskararen prestigioa Nafarroako elizbarrutikoek? Lurpean, eta, nahita, gainera!

Xanti Begiristain Madotz. (Auritz)

“Ikasle bakoitzak erabakitzen du zer abiaduran eta erritmoan ikasi nahi duen”

Afzioa ofizio bihurtzea lortu du Igor de Castro lekunberriarrak. Bidea ez da samurra izan, baina bateriarekiko duen maitasunak eman dio zailtasunei aurre egiteko indarra. 2011n abiatu zuen Martillo Txiki proiektua, eta hurrei zein helduei ematen dizkie eskolak, Lekunberrin.

Nor da Igor de Castro?

Lekunberriko semea naiz. 1979an jaio nintzen, eta hemen bizi izan naiz beti. Bi edo hiru urtez Usurbilen bizi izan nintzen, neska lagunarekin, baina berriro itzuli gara. Lekunberrin beti ibili izan naiz gauzak antolatzen, asko gustatzen baitzait, eta ez soilik musikaren inguruan; gaztetxean eta herriko beste ekimenetan ere bai, esaterako. Egia esan, saltsero hutsa naiz. Musika txikitatik gustatu izan zait. Musika eskolan hasi nintzen, inguruko ume askoren moduan. Solfeo 5. maila bukatu, eta akordeoia

“Zata taldea oso garrantzitsua izan zen niretzat”

eta txistua jotzen hasi nintzen musika eskolan, zortzi urtez. 15 urterekin, Barrikada eta Su Ta Gar bezalako taldeak entzuten hasi nintzen, eta orduan ezagutu nuen musika estilo hori, baita bateria instrumentua ere.

Beraz, 15 urterekin heldu zenion perkusioari?

Iruñean bateria ikasteko lekuak bilatzen hasi nintzen, eta han ere ez zeuden asko. Atarrabian hasi nintzen ikasten, baina bi eskola baino ez nituen eman. Orduan, hango irakasleak Joakin Lopez aurkeztu zidan. Momentu horretan, akordeoia saldu eta bateria bat erosi nuen, lortutako diruarekin. Joakin oso irakasle berezia izan zen: bai musikari dagokionez, baita arlo pertsonalari dagokionez ere. Bateriarekin maitemindu nintzen. Hortik gutxira, gaztetxean ibiltzen ginenok, 16 urterekin edo, lehenengo lagunaren musika taldea sortu genuen, 1996an: Zata. Oskar Estanga, Urko Zubiria, Xabier Zarmargilea, nire neska laguna, Juantxo Zabalo... ziren taldekideak.

Kristoren ilusia izango zenuten.

Asteburua entseatzan pasatzen genuen. Gabariren goiko solairuan egin duten erabilera anitzeko gelan aritzen ginen. Punk, metal, rock... estiloko zerbait jotzen genuen. Lau edo bost hilabete generamatzanean, Berri Txarrak taldeak eskatu zigun haren ehungarren kontzertuan jotzeko, frontoiko lokal-gaztetxean,



telonero gisa. Abeslariak, Xabierrek, hamabost bat egun baino ez zera matzan gurekin! Askotan esaten dut niretzat talde hori oso garrantzitsua izan zela. Garai horretan hasi ginen probatzen, ilusioz... izugarri gozaten genuen. Ordu pila bat igarotzen genituen, zerbait produktiboa egiten, erlazionatzen, bizitzaz hitz egiten.

Harreman berezia sortuko zen zuen artean.

Garai horretan sendotu zen kuadrilla; bai taldearekin, bai gaztetxearekin. Oso serio hartzen genuen. Urte oso politikak izan ziren. Aro hori bukatu zenean, Andoainera joan nintzen goi mailako Irudia eta Soinua gradua ikastera, bi urtez. Bateriarekin musika sortzen hasi nintzen, eta musika talde bat osatu nahi nuen. Horretarako, iragarki bat jarri nuen Diario Vasco-n, eta, hala, gitarrista bat ezagutu nuen. Urtebetean sortu genuen Korumba taldea, eta hamabost urtez aritu gara leku askotan jotzen. Hiru disko argitaratu genituen, eta gure lehentasun nagusien artean zegoen taldea. Espainian asko jo genuen: Madrilén, Toledon, Caceresen... 2013an Berri Txarrakekin Ondarroan eskainitako kontzertua ere oso berezia izan zen. Bielorrusiara ere joan ginen. Orain dela bost edo sei urte bukatu zen Korumba. 30 urteekin, nire bizimodua aldatzen hasi nintzen; nire familiaren okindegian hasi nintzen lanean, baina hori utzi, eta kontserbatorioan hastea erabaki nuen. Gaur egun, proiektu berri batean nabil: talde berri bat sortu dugu Xabier Zabaletak, Santi Ruizek eta hirurok, eta espero dut laster zuzenean ikustea jotzen.

Musikaren aldeko apustua egin zuenuen?

Nire bikotekideak ere nigan sinisten zuen, eta hori oso garrantzitsua zen,



Igor de Castro Korumba taldearekin jotzen, Madrilén, Vallecacaseko Excalibur salan.
Arg: Igor de Castro.

ez bainuen ez lanik, ez ezer. "Saia-tuko naiz, gutxienez", esaten nuen. Garai batean, Irunen eskola batzuk eman nituen, eta orduan erabaki nuen eskolak eman nahi nituela, musikarekin egin nahi nuela lan. Erabaki nuen gehiago trebatu behar nintzela, eta serioago hartu. Zazpi urtez egon nintzen kontserbatorioan, eta orduan sortu zen Martillo Txiki proiektua, 2011n. Izan ere, Hernanin hasi nintzen lau ikasleri eskolak ematen, diru gutxirekin, baina lan egin behar nuen. Beraz, praktikak estutu, eta ahal bezala, familia ere tarteko, ikasten eta lanean aritu nintzen. Urte oso polita baina oso gogorra izan zen. Kontserbatorioan asko ikasten da, baina oso exigenteak dira. Nire bigarren semea jaio zen garai hartan, eta dena batu zitzaidan. Kontserbatorioa bukatu, eta Martillo Txikirekin jarraitu nuen. Prozesua oso naturala izan da, proiektuan sinistu dut, hasieran beldur handia nuen arren, eta bere fruituak eman ditu.

Bateria eskolak ematen hasi zinenean, ba al zegoen horrelako eskaintzarik inguruan?

Ez, musika eskola baino ez, baina beste modu batean lantzen dute.



Marimba instrumentua jotzen. Arg: Labrit.

"Denetatik irakasten dut, baina bateria da instrumentu izarra."



Martillo Txiki perkusio eskolan. Arg: Labrit.

Nahiz eta metodologikoki gauza oso antzekoak eman ditzakegun, hau desberdina da. Bateriak gabezia bat dauka alde horretatik. Izan ere, goi mailako ikasketak badaude, jazz estilora bideratuak, baina musika eskolatik goi mailako horretarako bidean ez dago ezer. Salto handia da goi mailarako prestatzea. Nik bateria irakasten dut gehien bat, baina denetatik irakasten diet ikasleei; instrumentu izarra da bateria. Zeure kabuz bilatu behar dituzu irakasleak baterian trebatzeko. Nik, esaterako, Pako Diez Akelarre taldeko bateria jolearekin ikasi nuen hiru urtez, perkusio klasikoa Jesus Mari Garmendia tolosarrearekin, Errenteriako konserbatorioan, eta Joakin Lopezekin zortzi urtez.

Zer eskaintzen du Martillo Txikik? Nori dago zuzendua?

Jende askok uste du Martillo Txiki izena duelako haurrei zuzendutako eskola bat dela, baina ez da hala: adin guztietakoei zuzenduta dagoen perkusio eskola bat da. Izen hori jarri nion nire jaiotetxeak Martilloenea izena duelako, eta nire aitona Ramon Martiarenari Martillo deitzen ziotelako. Horregatik erabaki nuen izen hori jartzea: nire aitonaren omenez eta ni neu ere Martillo Txiki sentitzen naizelako.

Haur, gazte nahiz helduek ikasi dezakete hemen. Bakoitzak nahi duenaren arabera irakasten dut. Bateria izan arren instrumentu izarra, musika erritmikoa edo solfeo erritmikoa deritzonaren oinarria ere lantzen dugu. Urteekin, denek ikasten dute behintzat partitura bat irakurtzen. Harmonia entzumenez irakasteko lan handia egiten dut. Ez harmonia teorikoa, baizik eta musikarekin lotutako harmonia. Denei saiatzen naiz marimba instrumentua pixka bat irakasten, zeren oso aproposa da notak eta akordeak ikasteko. Perkusioa orokorrean lantzen dugu: konga, djembe, xilofonoa, marimba... Denetatik pixka bat. Baina eskola honetan, ikasle bakoitzak erabakitzen du zer abiaduran eta erritmoan ikasi nahi duen. Hori oso garrantzitsua da niretzat, ez baitzait gustatzen inor behartzea. Ez dut zehazten ikasturte bakoitzean zer ikasi behar den.

IORTIA EL INCA ESTIVAL - HORTZ ESTETIKA

Juanjo Gait García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

Garrantzitsua al da ikasleak gustura etortzea eta zurekin konfiantza izatea?

Ezinbestekoa da diziplina lantzea instrumentu bat jotzen ikasteko, bizitzako gauza guztietarako bezala, eta hori nola kudeatu erabakitzeke, buelta asko ematen dizkiot buruari: noiz hasi, zenbat lan bidali etxean egiteko, zer-nolako gogortasuna erakutsi, zer aurpegi jarri ez badute ikasi... hori guztia zaintzen saiatzen naiz. Exijentzia ona da, baina garrantzitsua da jakitea nola kudeatu exigentzia hori. Nik uste bide onetik noala alde horretatik. Jendeak eskolan jarraitzen du, eta horrek asko poztzen nau. Inoiz esan didaten piroporik hoberena ikasle baten aitak esan zidan: "Semea ikastera etortzen da berak nahi duelako, ez guk behartzen dugulako". Eta ikasle horrek sei edo zazpi urte daramatza dagoeneko hemen ikasten. Niretzat oso garrantzitsua da, jotzen ona izan ala ez izan, eskolak bukatzean ere batera jotzen jarraitzea.

Batukadak ere egiten dituzue.

Batukada asko gustatzen zait, baina gehienbat erabiltzen ditut ikasleak elkartzeko. Eskolak indibidualak direnez, ikasleak elkartzen ditut talde lanean aritzeko. Ikasturte bukaeran kontzertu bat egin ohi dugu, eta aurten otsailean ere beste bat egin nahi dugu. Eszenatokia zapaltzea inportantea da, eta horretarako elkartzen ditut. Hemen denek ezagutzen dute elkar, gazteenek eta zaharrenek ere bai. Batukada da taldean lan egiteko erreminta bat, eta horregatik da oso preziatua niretzat. Lekunberriko jaietako txupinazoan jo genuen, adibidez, eta orain dela bi urte ere bai. Ikasleentzat izugarria da, profesional sentitzen direlako, eta taldean lan



eginda lotsa kentzen hasten direlako, harremanak izaten...

Ikasturte honetan izen eman daitenke oraindik ere?

Bai, noski. Martillo Txiki irekita dago sartzeko nahiz ateratzeko. Izan ere, konturatu naiz garrantzitsua dela ikasleei edozein momentutan eskola uzteko aukera ematea. Garrantzi handia ematen diot horri ere. Ikusten badut umeren batek ez duela interesik edota ez dela gustura etortzen eskolara, gurasoekin hitz egiten dut eta eskola uzteko aukera ematen diot. Etortzen direnak gustura egoitea nahi dut.

Informazio gehiago:
martillotxiki.com web orrialdean edota Youtubeko "Martillo Txiki" kanalean.

Ikasturte bukaeran ikasleek egindako kontzertua, Lekunberriko kiroldegian. Arg: Igor de Castro.

"Exijentzia ona da, baina nola kudeatu jakin behar da"

 **NEKAZARI, S.L.**

ANTONIO CARRARO 

Olagain. Mugiro. Nafarroa
 Tel.: 948504128
 Fax: 948504377
nekazaris@hotmail.com



BIDEGOXO  **JATETXEA**

Jaunartzeak
 Ezkontzak
 Ospakizunak
 Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
 20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

'Escape room', Betelun eta Lekunberrin

Gizarte Zerbitzuak

Badakizu zer den Escape room bat? Parte hartu al duzu inoiz horrelako ihes gela batean? Azaroan izango duzu halako abentura bat bizitzeko aukera, bai Betelun, baita Lekunberrin ere. Izan ere, Sakanako hiru Gizarte Zerbitzuek antolatutako egitasmo hau gurera ekarri dute, Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean. Lekunberrin azaroaren 6an egingo dute, Mitxau-senea kultur etxean, egun osoan. Betelun, berriz, azaroaren 13an, eta Indiano Etxea atonduko dute horretarako. Prebentzioa izango da ihes gela honen ardatza, eta parte hartzaileek hainbat proba eta joko gainditu beharko dituzte irteerara ailegatzeko. 12 urtetik aurrerako pertsona orok parte hartu dezake. Euskaraz izango da.



▶ ZER DA ESCAPE ROOM BAT?

↪ *Beti esan digutenari Areto itxi batean egiten den ginkana antzeko bat, adin guztientzat. Jolas kooperatibo bat da. Taldea gela baten barruan itxita dago, eta handik atera behar du. Horretarako, ematen zaizkien pistak jarraituz, kodeak deszifratu beharko dituzte. Asko pentsatu beharko dute, adostu, erabakiak hartu...*

▶ ZEIN DA HELBURUA?

↪ *Helburua aisialdi alternatiboa eskaintzea da, lagunen artean ondo pasatzea, ekintza osasuntsu eta eraikitzaile batean. Lankidetzeta, koordinazioa, estrategia eta logika erabiliz, talde lana burutzea da gakoa. Eta, noski, proposatutako erronka gainditzea: enigmak, puzzleak, hainbat proba, asmakizunak... Horretaz guztiaz gain, talde lana, pentsamendu kritikoa eta adimena bezalako arloak ere landuko dituzte jokalariek.*

▶ NOLATAN JARDUERA HAU?

↪ *Orain dela sei ikasturte hona, Gizarte Zerbitzuak eta Euskara Zerbitzuak 12 eta 16 urte bitarteko nerabeentzako hainbat aisialdi jarduerak antolatu dituzte. Programa horren barruan hainbat egitasmo egin dira: hala nola ur festak, zine-forumak, batukadak, sukaldaritza eta serigrafia tailerrak... Hala ere, irteera batzuk ere antolatu dituzte: salting-era eta izotz-pistara egingo dako txangoak, esaterako.*

↪ *Pandemiak eragindako egoera gogorra izan da, eta azken hilabeteak ere ez dira batere samurrak izan. Egoera horretan, helduek bakarrik ez: gaztetxoek ere egoera latzak bizitu dituzte, eta pandemia egoeraren ondorioak pairatu. Hori dela eta, Gizarte Zerbitzuek eta Euskara Zerbitzuak ezinbestekotzat jotzen dute gazteen garapenerako osasungarriak eta onuragarriak diren aisialdi jarduerak eskaintzea. 'Escape room'-a izango da ikasturte honetako aurreneko aisialdi jarduerak.*



▶ NOLA PARTE HARTU?

- ↳ Ihes gelan parte hartzeko ezinbestekoa izango da izena ematea. Antolatzaileek parte hartzaileen kopurua jakin behar dute aurretik, jarduera talde txikietan antolatu ahal izateko.
- ↳ 'Escape room'-a talde txikitan parte hartzeko jarduera da. Taldean, gehienez, sei lagun egon daitezke, eta talde bakoitzak ordubete pasako du jardueran. Norbaitek talderik ez badu eta parte hartu nahi badu, izena eman dezala, antolatzaileak beste talderen batean sartzen saiatuko baitira.

▶ NORK GIDATUKO DU?

- ↳ Tramankulu Haur Jolasa enpresak sortu du ihes gela hau. Halere, honetaz gain, beste batzuk ere sortu izan dituzte. Esaterako, 'escape room' ibiltari bat, eta gai ezberdinetakoak: Gau Beltzarako bat, inauterietarako bat, berdintasunean oinarritutako bat...

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA:

Lekunberrin parte hartzeko, urriak 29, ostirala. Betelun parte hartzeko, azaroak 5. Deitu 948 600694 edo 605466805 zenbakietara (Gizarte Zerbitzuak) edo idatzi larbeleareuskaraz@iparmank.eus helbidera (Euskara Zerbitzua).

ETA ZUK, ZER JARDUERA EGIN NAHI DITUZU?

Ikasturte honetan zer ekintza egingo diren erabaki dezakezu. Horretarako, bi bilera egingo dira, Betelun eta Lekunberrin. Azaroaren 3an izango dira: 17:00etan Betelun eta 18:30ean Lekunberrin. Hitz egin lagunekin zer egitea gustatuko litzazukeen, eta azaldu zuen proposamenak!



Lagunasesoria S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es



SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



TAXILON
Lontxo
Otamendi
Artola
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com
Atallu - Araitz



ARRUIZKO GESALA EZAGUTARAZTEN

Nola egiten zen gatza Larraunen? Arruizko gesala eza-gutzeko txango didaktiko bat antolatu zuten urriaren 24rako, Ura eta Lurra ekimenak, Iturraskarrik, Larraungo Udalak eta Arruizko kontzejtuak. Deialdiak erantzun zabala izan zuen, eta hainbat eta hainbat herritar joan ziren Arruizera gesala bertatik bertara ikustera eta horri buruz pixka bat ikastera. Izan ere, Fran Sanz geologoak gidatu zuen txangoa, eta prozesuaren inguruko xehetasun ugari eman zituen. Gesalak bisitatzeko prestatu dituzte, eta edonor joan daiteke bertara.



GABARI ARETOA INAUGURATU DUTE

Ateak parez pare ireki ditu Gabari gunek. Bi inaugurazio egin dituzte: batetik, herritarrak gonbidatu dituzte, eta bakoitzari giltza bat eman zioten, *Zurea da giltza* lelopean. Bestetik, aurkezpen instituzionala egin dute. Bertan izan ziren Lekunberri, Atez, Irurtzun, Azpirotz eta Arruizko alkateak, Banur eta Saigos-Uranga erakuntza enpresetako ordezkariak, Plazaola Patzuergoko ordezkaria, Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuetako ordezkaria, Larraungo zinegotzi Joxe Jabier Barberena, Goretzi Niewa arkitektoa eta udaletxeko langileak.

KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATUZ

Lekunberriko Udalak "LekunberriON: Lekunberriko Prestakuntza eta Enplegurako Plan Estrategikoa" aurkeztuko du azaroaren 10ean, 12:30etik 14:30era egingo duten Lekunberriko udaletxeko osoko bilkura aretoan. Lekunberriko eta eskualdeko enpleguaren egoera aztertuko dute, eta hainbat jarduerak proposatu dituzte atzemandako beharrei erantzuteko eta identifikatutako aukerak indartzeko. Izena eman behar da.

Lekunberriko Udala
Ayuntamiento de Lekunberri

ON
LEKUNBERRI

Plan estratégico de formación y empleo de Lekunberri
Resumen Ejecutivo, Octubre 2021



LURRAREN EMANKORTASUNA HOBETZEN IKASTEN

Araitzen lurra emankorragoa bihurtzen ikasteko egun osoko ikastaro bat antolatu zuten Habelartek, Araizko Zaporeak egitasmoak eta Araizko Udalak. Lurra nola landu irakatsi zieten bertaratu zirenei, eta hiru atal izan zituen ikastaroak: hasteko, Meghan Sapp nekazaritza jasangarrirako aholkulariak eskola teoriko bat eman zuen udaletxean. Ondoren, Mikel Lasartek lurraren ezaugarriak azaldu zituen. Eta arratsaldean, jarduera praktikoa egiteko aukera izan zuten belardi batean, Aitor Azkarateren gidaritzapean.



DESPOPULAZIOAREN AURKAKO BI PROIEKTU, AURRERA

Gorritik eta Etxarrik aurkeztutako despopulazioaren aurkako proiektuek diru laguntza publikoa jasoko dute. Etxarrik 94.000 euroko proiektua aurkeztu du ostatu berritu eta erabilera anitzeko bilgune bat sortzeko, eta 60.000 euroko laguntza jasoko du. Gorritik, berriz, kontzeju etxean erabilera anitzeko espazioa sortzeko 45.000 euroko proiektua aurkeztu du, eta 33.000 euroko laguntza izango du. Halaber, kontzejuek eta udalak beste zortzi proiektu aurkeztu zituzten, eta horiek ere aurrera eramaten saiatuko dira ordezkariak.

ROCK DOINUAK PRINTZAN

Printzako kideek gogotsu heldu zioten ikasturte berriari, eta azken boladetan ere izan dute zer eskainia. Hain zuzen, Kinada eta Silicies Grizzlies rock taldeek kontzertu ederra eman zuten kanpoaldean. Horrez gain, olioa bererabiliz xaboia egiteko ikastaro bat egiten zuten, Paul Beitiak *Euskara eta klase sozialak* hitzaldia eman zuen, eta *Sagarren denbora* dokumentala eman zuten.



Mailoen aura agerian

Araiztarren eta paisaiaren arteko harremana aztertu du Arantza Santesteban zinemagileak, Landarte egitasmoaren barruan. Film labur bat ondu du, eta herritar batzuei egindako filmaketetan oinarritu da. Azaroaren bukaeran edo abenduaren hasieran aurkeztuko dute "Liluraren kontra" proiektua. Aitortu du maiteminduta utzi duela Araitz, eta nahi baino denbora gutxiago eman duela bertan.

16



Arantza Santesteban zinemagile eta ikertzailea. Arg: Labrit.

Mailoak parez pare begiratu, eta zer energia, zer bibrazio sentitzen den. Zer lilura gordetzen duten mailoek, eta nola ailegatzen zaien aura hori araztarrei. Sentipen horiek izan ditu abiapuntu Arantza Santesteban zinemagile eta ikertzaileak (Iruñea, 1979) "Liluraren kontra" proiektuan. Nafarroako Gobernuaren Landarte programaren barruan aritu da Araitzen lanean, bi hilabete eta erdiz, eta film labur bat ondu du bildutako materialarekin. Profil desberdinak dituzten arazitarrak izango dira protagonistak: alkatea, nerabeak, baserritarrak, zaintza eta ostalaritza lanetan aritzen diren Nikaraguako langileak, Araitzera bizitzera etorri direnak... Azaroaren bukaeran edo abenduaren hasieran aurreikusten dute proiektua herritarrei erakustea, Arribeko elizan egingo den aurkezpenean. Solasaldi bat egitea da asmoa, pelikulan agertzen direnekin, bertaratzen direnekin eta proiektuan lan egin dutenekin: Ainhoa Gutierrez del Pozo aritu da Santestebanekin filmatzen, eta muntaketa Maite Redondo eta Mirari Etxabarrirekin egin du.

Arte garaikidea eta landa-eremua uztartzea du xede Landarte egitasmoak. Aurtengoa bosgarren aldia du, eta Nafarroako sei udalerrri edo ibar hautatu dituzte ekinbidea garatzeko: Aiesa, Murieta, Murillo el Fruto, Artzibar, Zubieta eta Araitz. Santestebanek adierazi du segituan onartu zuela proposamena, oso gustukoak zituelako bai egitasmoa, bai Araitz ibarra. Izan ere, aurretik ez zuen asko ezagutzen Araitz, baina gogoan du

haurra zenean gurasoekin Donostiarako bidean bertatik igarotzen zirela, baita mendira egindako hainbat txango ere. Halere, onartu du bertan lanean aritu eta gero ere ez duela nahi bezainbeste ezagutzen ibarra, epea laburra izan delako, baina sentipen politak dituela egonaldia eta gero: "Maitemindu egin naiz. Harreman afektibo bat sortu zait lekuarekin eta bertakoekin; niri asko eman dit, eta nik ez dakit zer utzi dudan, baina espero dut zerbaitek behintzat utzi izana".

Uztailean heldu zioten "Liluraren kontra" proiektuari. Azaldu du aurreneko momentutik "potentzial asko" ikusi zizkiola tokiari, baina denborak eta aurrekontuak mugatuta, ezin izan duela hasieran okurritu zitzaion guztia egin. Fokua Araitzen izandako artistengan jartzea zen hasierako asmoa: "Oso interesgarria iruditu zitzaidan ikerketan sakontzea, sekulako ahalmena ikusten niolako horri, batez ere 70eko eta 80ko hamarkadetan 'kanoniko' bihurtu ziren euskal artistek utzitako aztarnak ikusi, eta gaur egungo egoerarekin alderatu nahi nuen. Zer dago gaur egun? Harreman hori ikertu nahi nuen. Izan ere, lehengo artista horiek oso pertsonaia ezagunak dira, eta lan oso ezagunak egin dituzte. Berehala ikusi nuen gaur egun ere harreman handia dagoela artearekin ibarrean, baina ezkutuagoa dela, eta ez daukate la horrenbesteko aitortzarik. Egiten dutena ez da hain ezaguna, eta hori zen galdera: zergatik? Zergatik borrokatu behar dira ikusgarritasuna lortzeko?".

Nikaraguako langile batzuk filmatu ditu. Arg: Arantza Santesteban.



Kamera erabili du aura agerian uzteko. Arg: Arantza Santesteban.



PAISAIAREN ETA ARAIZTARREN ARTEKO HARREMANA

Alabaina, erabaki zuen indarra beste alor batean jartzea, eta ikertu edo sakondu du gaur egun ibarrean bizi diren batzuek zer harreman duten paisaiarekin, zer garrantzi daukan paisaiak arazitarrontzat, zenbateraino eragiten dien. Hain zuzen, lilura eta aura jarri ditu erdigunean, eta ez da kasualitatea izan. Arte Ederretan doktoretza egiten ari da Santesteban, eta Walter Benjamin filosofo eta literatura-kritikari alemaniarraren testu bat irakurtzen ari zela inspiratu zen. Izan ere, hark egiten zuen hausnarketa zen, zinema eta argazkigintza agertu aurretik, artelanak originalak zirela, ez zeudela erreproduzituta, ez zirela kopiak egiten: "Originalak zuen indar horrek harreman auratiko bat sortzen zuen ikuslearen eta artela-

naren artean. Artelanaren auraz hitz egiten du, eta hasi nintzen pentsatzen zer den aura bat: ez da ikusten, bibrazio bat da, baina iritsi egiten zaigu energia hori". Segituan lotu zuen aura Mailoekin: "Mailoen paisaia oso auratikoa da, badu zerbaitek; ez duzu bertatik ateratzen den energia ikusten, baina mailopean zaudenean oso presente daukazu zure eta haien artean dagoen distantzia, eta distantzia hori asko aldatzen da ibarrean zauden lekuaren arabera". Artistari hori iradokitzen zioten Mailoek, eta jakin nahi zuen bertan bizi zirenei zer eragiten zieten, arazitarrak galdetuz ea lilura hori sentitzen duten ala ez.

Nola utzi agerian sentitzen zuen aura hori? Kamera erabili du horretarako, Benjaminek esaten baitzuen aura kamerarekin apurtzen edo desegiten zela, behin eta berriz erreproduzitzen baita aura kamerare-



Jose Manuel Zubillaga Araizko alkatea ere ageri da film laburrean. Arg: Arantza Santesteban.

kin bitartez. Ezustean, baina unerik egokienean, Lou Reed rock musikari, konpositore eta argazkilari estatubatuarak eman zion horretarako gako. Izan ere, Azkaraten egonaldi bat egin zuen, eta Balerdi mendiari ateratako argazki batzuk argitaratu zituen Romanticism liburuan, zuri-beltzean. Reedek erabilitako efektuaren bidez, aura agerraraztea lortu zuela iruditu zitzaion Santestebani: "Argia lentean sartzen uzten zuen, ez zuen argi hori ezkututzen. Iruditu zitzaidan aura agerrarazten zuela horrela. Oso aurkikuntza indartsua izan zen, eta nik ere hala egitea erabaki nuen". Dena den, egindako irudi horiek ezin izan

ditu azkenean film laburrean sartu, abiapuntua horixe izango duen arren. "Nire ustez bigarren pelikula bat behar da. Ezin izan ditut pelikula berean sartu gaur egungo herritarrekin paisaiarekin duten harremana eta nik egindako esperimentazioa paisaiarekin. Hala ere, material asko gelditu zait, eta irteera bat eman nahiko nioke; ez dut bazterten beste pieza bat egitea hori erabilita. Pena ematen dit, baina prozesuetan galerak onartu egin behar dira".

Egindako filmaketetan oinarrituta, ezin izan du ondorio borobilik atera, eta azaldu du hori ez zela bere asmoa. Halere, konturatu da baietz, badagoela auran oinarritzen den harreman bat araztarren eta Mailoen artean: "Badago afektuzko harremana inguruarekin. Oso presente dago". Ezagututako pertsonen artean, halaber, iritzi desberdinak daudela dio, begirada eta harreman desberdinak. "Begirada batzuek balio handia ematen diote hor egon denari eta egon litekeenari; beste batzuek, berriz, begirada praktikoagoa dute, hau da, bertan lan egiten dute eta horregatik bizi dira bertan. Belaunaldi berrien kasuan, nik uste dut asko maite dutela ingurua, kontziente direla leku berezi batean bizi direla, eta horrek asko poztu nau, ze nik uste balioan jartzen dutela, beste begirada eta tresna batzuekin izan arren: teknologia berrie-kin, adibidez".

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitarakoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, errokilak, croisant-ak eta napolitanak.

Asteleheneretik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
 Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
 948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
 Betelu 31890
 948 513 083
 696 732 290
 aitzberri@hotmail.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
 948 50 43 31
 Lekunberri

German Lasarte

ARBONDO HARATEGIA

Aralar kalea 9
 Lekunberri
 948504157



Baserritar batzuk ere filmatu ditu.
Arg: Arantza Santesteban.

LANDA-EREMUAREN ETA EREMU URBANOAREN DIKOTOMIA

Araiztarren begiradak izan diren arren proiektuaren funtsa, Santestebanek uste du ibarretik haratago ere koka daitekeela film laburra: "Landa-eremuan bizi diren pertsonen buruzko hausnarketa bat da, baina Araitzen dauden problemak ez dira soilik Araizkoak: problema garaikideak dira, landa-eremuan dauden begirada eta problema batzuk". Iru-ditzen zaio landa-eremua ikuspegi urbanotik idealizatzeko joera dagoela, eta begirada dominantea dela urbanoarena. "Bizimodu garaikidearen paradigma ulertzen dugu begirada urbano batetik, eta begirada urbano horrek askotan landa-eremua idealizatzen du, pentsatuz landa-eremua deskantsurako eta deskonektatzeko leku bat dela, baina nik uste dut hori auzitan jarri behar dela". Izan ere, zinemagilearen prisma, landa-eremua eta urbanoa ez dira bi mundu desberdin, baizik eta harremanetan dauden bi lurralde: "Jende urbanoa landa-eremutik bizi gara, bertatik iristen baitzaizkigu produktuak. Landa-eremua ez da eremu hesitu bat, eta biak erabat konektatuta daude". Nola amaiarazi dikotomia hori? Dikotomia hori zalantzan jartzea da erronka Santestebanen ustez, begirada urbanoaren nagusitasuna kuestionatzea.

Pozik egindakoarekin, baina penaz bizi ez duenarekin; etorriko denari gogoz eusteko asmoz, eta sortutako harremanak ez galtzeko itxaropenez. Halaxe utzi ditu Arantza Santestebanek Araitz eta Mailoak atzean. Hunkituta begiratzen ditu orain A-15 errepidean Donostia eta Iruñea artean egiten dituen bidaie-tan. Aurak liluratuta.



Erregea biluzik

Behin batean, bazen errege botere-tsu eta krudela. Bere azpiko guztien obediencia itsua exijitzen zuen. Errege guztien artean dotoreena izan nahi zuenez, jostun famatuak deitu zituen bere gortera mundu osoko jantzirik ederrena egin zie-zaioten. Urrearekin eta bitxiekin egindako oihalekin jantzea proposatu zioten guztiek, batek izan ezik. Honek agindu zion inoiz inork ikusi gabeko jantzirik ederrena egingo ziola, mundu osoaren mirespena eta inbidia esnatuko zuena. Baietz esan zion erregeak eta neurriak hartuta, sastreak jantzia egitera ekin zion. Horren ederra behar zuen jantzia, inork ezin zuela ikusi bukatua egon arte. Amaitzear zegoela, jostunak esan zuen jantzi eder hori, inork kritikatu edo ikusten ez bazuen, traidorea izatearen seinale argia zela. Eguna iritsita, erregea biluzarazi eta gorputz gainean inork ikusten ez zuen jantzia jarri zioten. Kalera irten ziren herriko guztiak erregea mirestera eta erregea zaldi gainean, sinistuta jantzi ederrena zeramala, biluzik abiatu zen kaleetara. Beldurrak jota, inork ez zuen sinetsi nahi ikusten zuena, alegia, erregea biluzik. Baina ume txiki batek oihu egin zuen "erregea biluzik doa!". Nik nire barruko ume hori maite dut eta begi aurrean daukadanaren gainean sinisten dut, ez besterik. Txikitatik irakatsi didate nire sena, nire egia, ukatzen, baina bide horrek barruan mina sortu dit. Hortaz, nire buruari egiten diot kasu, ez besteek sinestarazi nahi didatenari.



Errigoraren 'Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka' kanpaina

Herriak egiten du herria leloa izango du Errigoraren 2021eko kanpainak. Nafarroa hegoalde eta erdialdeko produktuz osatutako hiru saski eskainiko dira, eta horien balioaren %25 zonako euskalgintzari bideratuko zaio. 2013an hasi zen Errigora herrigintza ariketa hau martxa jartzen, eta urteotako diru-ekarpena ezinbestekoa izan bertako ikastolek eta AEK-k herritarrak euskalduntzen jarrai dezaten. Saskiak eskatzeko: errigora.eus helbidearen bidez.




Azken urtetan bezalaxe, hiru saski eskainiko dituzte kanpaina honetan:

- Saski beltza (55€): Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, oliba-olio birjina estra, botila ardoa, melokotoia almibarrean, melokotoi marmelada, tomate frijituak, potxak, teilak, kardua, mahats-zukua, piper-mamia.
- Saski berdea (65€): Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, oliba-olio birjina estra, botila ardoa, ardo-ozpina, dilista lehorrak, barazki-menestra, arroza, pasta, sagar-zukua, teilak.
- Saski zuria (75€): Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, oliba-oliobirjina estra, botila krintza, ardo zuri apartsua, patxarana, pikillo marmelada, txokolatezko zigarretak, patxaran-pastak, polboroiak.

EUSKAL HERRIA

Amaia Egidazurentzat Etxepare saria, 'Dorotea' albumarekin

Natura eta kultura, tradizioa eta traizioa dotore biltzen dituen *Dorotea* albumari eman diote 2021eko Etxepare saria. Amaia Egidazu durangarra da album horren egilea, eta epaimahaiak nabarmendu du "oreka beteko" lana dela saritutakoa. 30 lan aurkeztu dira Etxepare sarirako, eta Leire Salaberriak (ilustratzailerak), Idoia Sobrinok (liburuzaina) eta Patxi Zubizarretak (idazlea) osatutako epaimahaiak erabaki du Egidazuri ematea 5.000 euroko saria. Horrez gain, saritutako lana Nafarroako Pamiela argitaletxeak argitaratuko du, euskaraz, 2021eko udazkenean.



- Izenburua: *Dorotea*
- Gaia: norberaren erosotasunaren eta beste izaki bizidunekiko errespetuaren arteko oreka.
- Adin egokia: 6 urtetik aurrera.
- Nabarmentzekoak: kontakizun errimatua, emakume ekintzailea, umorea, naturaren kate trofikoak, ipuin tradizionalen erreferentziak, collage teknikaren erabilera.

NAFARROA

Julio Soto, finalurrekoetara



Azaroaren 14an Leitzan jokatu den finalurrekorako txartela eskuratu du egungo txapeldun Julio Sotok. Donezteben egindako saioarekin, itxiztat eman da final-laurdenen fasea, eta ondorioz, osatu da finalurrekoetan ariko diren 18 bertsolarien zerrenda. 200 entzule inguru bildu ziren Doneztebeko zineman, saioa bertatik bertara jarraitzeko.

Saioko ariketa puntuagarriak behin eginda, Julio Sotok eskuratu du epaileen puntu gehien, 387,5, eta hortaz, saioa irabazi eta Leitzako finalurrekorako txartela eskuratu du. Harren atzetik sailkatu dira Josu Sanjurjo (335), Iker Gorosterrazu (304), Ekain Alegre Gil (284,5), Egoitz Gorosterrazu (272,5) eta Sahats Aleman Sadaba (267).

Gauzak horrela, lau final-laurdenetako irabazleei puntuazioaren araberrako hurrengo 14 bertsolariak gehitu zaizkie, honako hauek: Eneko Fernandez Maritxalar, Eneko Lazkoz Fernandez, Joanes Illarregi Marzol, Julio Soto Ezkurdia, Saioa Alkaiza Guallar, Erika, Lagoma Pombar, Xabat Illarregi Marzol, Josu Sanjurjo Altzuri, Sarai Robles Vitas, Xabier Silveira Etxeberria, Alazne Untxalo, Erregerena, Ekhiñe Zapiain Arlegi, Endika Legarra Nuin, Mikel Lasarte Cia, Julen Zelaieta Iriarte

eta Iker Gorosterrazu Elizagoien, Patxi Castillo Graciarena eta Oier Lakuntza Irigoien.

Finalurrekoak hiru saiotan egingo dira: azaroaren 1ean Altsasun, azaroaren 6an Berriozarren eta azaroaren 14an Leitzan. Horietatik denetik, zortzi bertsolari sailkatuko dira azaroaren 28ko Iruñeko finalerako.

21

MAILOPEKO BAZKIDEA
IZAN NAHI DUZU?
mailope@labrit.net

Errotaldea 19,
Lekunberri
www.marillotxiki.com
679 938 016

MARTILLO TXIKI
PERKUSIO ESKOLA

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri

OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

ekin
rotulación

948 85 32 79

SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Gamendia 629 350 099
Arbe-Atallu



11 talde arituko dira Beti Kozkorren 2021-2022 denboraldian

22

Urri hasieran aurkeztu zituen Beti Kozkor futbol taldeak 2021-2022 denboraldian arituko diren 11 futbol taldeak: futbol eskola, nesken alebin taldea, mutilen alebin taldea, mutilen Infantil A eta B taldeak, nesken kadete taldea, mutilen kadete A eta B taldeak, mutilen Jubenil eta Regional taldeak eta 3. mailako taldea.

Araxes sokatira taldea oso txukun aritu da Nafarroako 6x6 Txapelketan

Araxes sokatira taldeko neskek Nafarroako 6x6 Txapelketan parte hartu zuten, emakumezkoen maila absolutuan, eta oso lan txukuna egin zuten. Txapelketan zegoen talderik gazteena zen, baina horrek ez zituen kikildu, eta bi talderi irabazita bueltatu ziren etxera. Txapelketan hirugarren gelditu zen taldeari irabaztea ere lortu zuten.

Udaberrian txapela lortu zuten 20 urte azpiko-koen txapelketan, eta oso lan ona egin zuten maila absolutuko misto modalitatean. Aurrera begira, Euskal Herriko txapelketan parte hartzeko asmoa daukate, 21 urtez azpiko mailan.

Bestalde, Olatz Altunak eta Josu Elizaldek Nafarroako Trontza Txapelketa Mistoko finalean jokatzeke txartela lortu zuten, baina podiumetik pauso batera geratu ziren, lan oso txukuna egin da.



'Oreja II' eta Larraungo pilota ardatz dituen liburua

Jesus Mari Oreja Oreja II pilotariaren inguruan ardatzen den liburu bat ondu dute Alvaro Bermejok eta Joseba Urretavizcayak, *Eskuz esku* izenburupean. Bi idazle horiek osatu zuten ere, besteak beste, *Aralar*, *artzain eta jentilak* liburua. Orejatarrek pilotan utzitako arrastoa aztertu dute, baita Errazkinek eta Larraun ibarrak pilotari emandakoa ere. Izan ere, garai bertsuan Larraungo 25 pilotari inguru aritu ziren profesionaletan. Ibilbide hori omentzeko obra bat da honako hau. Azaroaren 19an aurkeztuko dute liburua, Gabari gune irekian, 19:00etan.



Larraun Pilota Elkarteko bazkide izateko kanpaina

30 urte bete ditu Larraun Pilota Elkar-teak, eta bazkideak lortzeko kanpaina bat abiatu dute. Pilota maite eta elkar-tean lagundu nahi baduzu, eman izena! Elkartea irekita dago familia handitzeko prest dauden pertsona guztiak hartzera. Izen emateko: <https://forms.gle/1Ua1zfuYBFtyzFSW6>. Zalantzarik izanez gero, idatzi larraunpe@gmail.com helbidera.

Xabi Azpiroz garaile 2021eko Martiko Sari Nagusia

Xabi Azpirozek irabazi zuen E-Remonte enpresak antolatutako 2021eko Martiko Sari Nagusia banakako txapelketa, Labriten, Ion eta Ezkurra II.a garaituta. Txapelketaren hasieran, Uterga-Barricartek irabazi zuten Otxandorena-Otanoren aurka, 35-34. Triangeluarreko lehen partidari Azpiroz eta Ezkurra II.a izan ziren aurrez aurre, eta lehia oso parekatua izan zen, espero zen bezala. Ezkurra II.a falta egin zituen sakez, eta 20-18 irabazi zuen Azpirozek. Ezkurra 14-20 irabazi zuen bigarren partida. Hirugarren partidari, Azpiroz oso lasai hasi zen, 4-4ra arte aldea irekitzea kosta zitzaion arren. Hortik aurrera ihes egin zuen, 7-17koarekin partidako alderik handiena lortu arte. Baina Zestoakoak ez zuen hain goiz amore eman nahi izan, eta markagailuan 15-17ra iritsi ziren. Bazirudien lonek buelta eman ziezaiokeela partidari, baina Azpirozek presio maila honetako partidetarako prest dagoela erakutsi zuen, eta partida itxi eta txapela janztea lortu zuen 15-20koarekin.

Aldapa handian harri koxkorra lepoko

Gaur egun eta daraman denbora erritmoa kontuan izanda, pergamino eta idazlumaz idazten ari dira zigor kodea oraindik ere, eta ahaztu inprentaz noski. Ordenagailu baten idatzi eta ezabatze ahalmenak eta aktualizatzeko sistemak ez dituzte ezagutzen antza. "Vintage" modaren nondik norakoak. Asko dira zigor kodean aldatu, berritu, eguneratu.. beharrekoak. Baina horretarako gizartearen ikuspuntua aldatzea da lehen egitekoa.

Berridatzi eta egokitu den arren, delitu baten biktimen inguruan egin ziren lehen klasifikazioak, hiru multzo handitan sartzen zituzten biktima guztiak: inuzenteak, kolaboratzaileak eta probokatzaileak. Horiek ez zituzten adituek sortu, eta gizartearen arazoimenaren arbera idatzi ziren.

40ko hamarkadako kontzeptuez ari naiz, orain ia 82 urte beranduago, indarrean jarraitzen duten kontzeptuak. Hitz horiek oihartzuna daukate gure kontzientzietan. Hitz horiek sistema judizialaren oinarri dira oraindik. Eta zaila bada biktimarentzat gizartean berriro seguru sentitzea, imajinatu biktima sexu, kultura, iritzi, pentsamendu, erlijio... eta abarreatatik gutxiesten denean.

Gutxiesteak ez dakar delitua-zen izatea txikitzea, ez biktimaren sendatze azkarragoa, arazoak eta delituak, erasotzailearen ekintzak normalizatzea dakar. Gutxiesteak ez dakar biktima biktimizatu eta "berbiktimizatzea" besterik. Aldapa handian harri koxkorra lepoko.



Murrizketarik gabeko festak

Ez zen festarik espero, baina Maria Chivite Nafarroako Gobernuko presidentek jakinarazi zuenean urriaren 1etik aurrera ez zela murrizketarik izango, Lekunberriko jai batzordeak erabaki zuen herriko jaiak aurrera eramatea, baita hala egin ere. Izan ere, egitarau oparoa osatu zuten, eta giro paregabea izan zen egun guztietan.

Gorka Azpiroz Lekunberriko alkateak adierazi zuen ahalik eta jairik normalenak egiten saiatuko zirela, baina nabarmendu zuen "herriarentzat" izan behar zutela. Hori dela eta, inguruko herritarrei eskatu zien urriaren 8tik 12ra Lekunberri ez joateko, masifikazioak saihesteko eta festak modu seguruan ospatzeko.

24



Txupinazoaren momentua.
Arg: Juan Antonio Garaikoetxea.





Erraldoiak eta kilikiak ere ibili ziren festan.
Arg: Juan Antonio Garaikoetxea.



Eneko Saralegi eta Julen Kañamares aritu ziren aizkoran.
Arg: Juan Antonio Garaikoetxea.



Txikienen lasterketa.
Arg: Juan Antonio Garaikoetxea.



Patafata tortilla lehiaketa.
Arg: Juan Antonio Garaikoetxea.

M. Angeles Urrizalki
iragarkiak,
berriak,
eskelak...

Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korrespontsala

948513056
699179437

Atabal
okindegia

Era askotako ogiak eta gozoak

Etkez etxe banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE HARATEGIA

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

BERTAKO HARAGIA

Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldatutako platerak.
Etxera eramateko zerbiztua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU



Gilipollasak

Globalizazioa etxeko paiteai pinture eskuet ematea bezalakoa da nere irui-menean. Pinture berri horrek berdintzen ditto esku marka bihurrik, aplastatu-tako elbin itzalak eta leiho baztarretako hezetasun mantxak.

Jendartea re berdin-berdin berdintzen saiatzen da globalizazioa. Pinture kapa beretxuekin iurtzi denok, eta berdin-berdin geatzen ez bagea re, tonu beretxukoak bintzet. Eskerrak hezetasun mantxek errex ateatzen deen berrize han da hemen!

Gure etxetako eo herritako hizketalditan re, gauze bera pasatzen ai da: atzetik bultzaka heldu deen hoik denak a lo, en plan, meme, essee, tu ta no beste kontuik ez daukue. Aurretik oztopoka diezten hoik, berriz, nahiko lan daukue nini-n aurrean sortu zaizkien hizkuntze konplejukin. Eskolatutako hoik jakin-gu duela ba noski hobekina, ta ohartu bare beak daukue eskolaik abeatsena.

Gure zarran ahotatik aittutakoak ez, baño globalizatutako pantallak gilipollas-tu gattue denok. Gilipollasak bihurtzen gea berdintzen gattuen pinture zipriztin bakoitzekin. Hobe giñuke belarrrik findu ta inguruko koloreak antzeman.

Dauneko ez ote da ba geatzen gure ingurun enasik? Gorputzeko zulotxotatik haizea heldu denean bultza in beharrean, pixkoat eutsi in behar zaiola ez dakien hoitako dee, esate bateako, enasak.

Dauneko ez ote da ba geatzen gorbeziik? Beretik ateatzen ez den espeziea da gorbe-ziena. Ekipo beretsukoak dee zokormazoak re, baino hok makaltxagoak. Narratsak re desagertuk izango dee. Jatean, lanean txukun aitzen ez den narratsik ez da izango dauneko. Igoal traskalakin juntatu, eta elkarren arrimoan ezeitakoak iñez ibilliko dee han da hemen. Abarra, bai, abarra gustatuko zaio globalizazioan kontu hau. Inongo kontrolik bare gasta hemen ta gasta han; abarran poltsak bi zulo!

Kontuk kontu, bukatu deela gure agotako koloreak, gure ingurukoak deskribatzeko hitz dotoreak: enasak, abarrak, narratsak eta gorbezik; zipotzak, zokormazoak, abarrak eta zabarrak; ergelak eta traskalak. Oain denok bihurtu gea grixek. Oain denok bihurtzen ai gea gilipollasak.

A-25

Emakumeen aurkako
indarkeria ezabatzeko
nazioarteko eguna

Bakardadean pairatzen diren
zauri ikustezinak daude.

Indarkerien biktima diren
emakumeei **laguntza integrala**
emateko taldeetan bizitza
hobe baterako atea irekitzen
lagunduko dizugu.

www.igualdadnavarra.es/taldeak

Gobierno de Navarra  Nafarroako
Gobernua



Instituto Navarro
para la Igualdad
Nafarroako
Berdintasunerako
Institutua

“Eredu industrialia gizonaren neurrira egin zen, eta emakumea eredu horretatik kanpo gelditu da”

Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna izan zen urriaren 15a, eta Ura eta Lurra egitasmoak eta Larraun Berdintasunean talde feministak ‘Emakumeak lan eremuan, emakumeak Larraunen’ izeneko solasaldia antolatu zuten Uitzin. Gotzone Sestorain baserritar, Etxalde mugimenduko eragile eta Leitzako kontsumo taldeko kidea gonbidatu zuten, eta elikadura burujabetzaz hitz egin zuen, agrofeminismoaren ikuspegitik.



“Larraunen behitegiak dira nagusi, eta horietan ez dago ia emakumerik”

lan egiten dutela azaldu zuen Sestorainek, eta errealtate horren atzean dauden arrazoiak azaldu zituen. Hori ere ez baita kasualitatea.

Landa eremua eta nekazaritza eremua desberdin zituen leitzarrak azalpenari heltzeko: “Landa eremuko emakumez ari garenean, askotan lotzen da landa eremua nekazaritza eremuarekin, baina beti ez da horrela; gaur egun, Nafarroako landa eremua oso anitza da. Oso desberdinak dira, esaterako, Leitza edo Lekunberri eta Aldatz edo Etxarri”. Alde horretatik, azaldu zuen industria edota beste zerbitzu batzuk dituzten herri handiagoetan emakumeek aukera askoz gehiago dituztela beren proiektuak garatzeko nekazaritza eremuetan baino. Azken urteotan, nekazaritza eremuetan emakumeak oso “hanka motz” geratu direla nabarmendu zuen, gertatu den transformazioa medio, eta oso aukera gutxi dituztela lan egiteko, gaztandegietan ez bada, edo eskala txikian lan egiten ez badute lehen sektorean. Halere, esan zuen, Leitzan esaterako, industrializazioak porrot egin zuela hein batean, eta, horregatik, baserri eredia ez dela horrenbeste aldatu, eta eredu horretan emakumea badagoela.

Baserrian jaiotakoa da Gotzone Sestorain leitzarra, eta ongi baino hobeki daki zer den lehen sektorean lan egitea. Urte batzuk baserritik kanpo eman zituen lanean, eta orain dela zazpi urte itzuli zen bertara. Egiten zuen lanaz aspertu, eta baserriaren martxa hartzea erabaki zuen, anaia-ekin eta semearekin batera. Gaur egun, hirurak aritzen dira baserrian lanean, eta, gazta egiteaz gain, oilaskoak eta patatak ere saltzen dituzte, besteak beste. Dena zuzeneko salmentaren bidez egiten dute.

Solasaldiaren hasieran esan zuen

landa eremua asko aldatu dela azken berrogei urte hauetan, baina bere baserrian beti izan dutela argi ez zirela eredu industrialean jardungo: iraunkorragoa izango zen zerbait behar zuten. Horregatik hasi ziren gazta egiten. Baina, Sestorainek esan bezala, hautu hori ez zen kasualitatea izan. Izan ere, Larraungo egoera aztertuz gero, agerian geratzen da behitegiak direla nagusi inguruan, eta horietan ez dagoela ia emakumerik. Badira artzaintzan aritzen diren emakume batzuk, baina emakume gehien-gehienak gaztagintzari lotuta



LANDA EREMUKO EMAKUMEEN DESBERDINTASUNAK

Gaur egun Larraun inguruan gizonen gehiago aritu arren emakumezkoak baino lehen sektorean, beste herrialde batzuetan egoera bestelakoa dela adierazi zuen Sestorainek. Afrikan eta Asian adibidez, landa eremuko emakume gehienak nekazariak dira, eta "esaten da herrialde horietan biztanleriaren %75 elikatzen dutela emakumezkoek egiten duten nekazaritza lan horrekin; oso femeninoa da". Orain dela berrogei urte inguru arte, Euskal Herrian ere jarduna femeninoa zela azaldu zuen hizlariak, emakumezkoek zein gizonen artean egiten zutela nekazaritza munduan. Aldiz, esan zuen kontuan hartu behar dela emakumea nola posizionatzen den gaur egun gizonarekiko.

Horri tiraka, landa eremuko emakumeak hiru desberdintasun bizi dituela azaldu zuen: "Batetik, hiria eta landa eremuaren artean desoreka bat dago. Gaur egun indar guztiak hirietan daude kontzentratuta, eta hiriko biztanleek xurgatzen dute dena: dirua, baliabideak... baita biztanleria ere; bestetik, genero desberdintasuna dago, eta arazo hori orokorra da, emakume guztiona, eta eskubideetan desberdintasun arautuak egon direlako gertatzen da hori; bukatzeko, nekazaritzako emakumeek desoreka gehitu bat daukate, elikadurarekin lotura duena: gaur egun merke jaten da, nekazaritza industriaren garapenagatik, baina baita nekazaritza eremuko langileen soldata txikituz joan delako ere urte hauetan, eta horrek denak eragiten du nekazaritza eremua desberdintasun egoera batean egotea beste eremuekin alderatuta, eta emakumea baldin bazara, egoera oraindik okerragoa da".

GIPUZKOAN ETA BIZKAIAN, EMAKUMEA GILTZARRI

Euskal Herriko egoerari erreparatuta, Sestorainek adierazi zuen desberdintasunak daudela zona batetik bestera. Esaterako, Gipuzkoan eta Bizkaian baserri txikiari eutsi diotela esan zuen, eta eredu horretan emakumea izan dela giltzarria. "Gizonen artean lan egitea joan dira, eta emakumezkoak gelditu dira baserriari eusten; normalean oso eskala txikiak izaten dira: baratzea daukate, ardi ale batzuk, behi gutxi batzuk...".

Nafarroan, aldiz, salbuespenezko zona batzuetan izan ezik (Leitza, Goizueta, Baztan...), sistema kapitalistak zuzeneko eragina izan duela uste du leitzarrak, eta sistema horrek ezarritako eredutik kanpo geratu dela emakumea: "Sistema kapitalistak argi zuen asko ekoiztu behar zela eta oso merke, eta lehengai merkea sortu behar zutela baserriarrek, merkaturatuak merke mantentzeko. Horren ondorioa da Larraunen ikusten dena: eredu industrial horretan gizona dago, gizonaren neurria egindako eredu bat delako, eta emakumea eredu horretatik kanpo gelditu da". Eredutik kanpo dagoenez, emakumea inguruko herri handiagoetara joaten dela esan zuen, beste zerbitzu batzuk dituzten herrietara, eta ez badu lan egiten zaintza izaten dela haren ardura nagusia: "Emakumeak ez du espaziorik, ezta lurrik ere".

"Nafarroako landa eremua oso anitza da"

BUELTAN DA MIKROIPUINEN LEHIAKETA!

Larraun eta Lekunberriko Euskara Batzordeak Mikroipuin en lehiaketa antolatu du beste urtez batez. Honako hauek izango dira parte hartzaileak:

- Bizitokia Larraun ibarrean dutenak (LHko 5. mailatik Batxilergoko 2. mailara)
- Ibarberri ikastetxean ikasten dutenak, bizitokia edozein dela ere (LHko 5 mailatik DBHko 2 mailara)
- Amazabal institutuan ikasten dutenak, bizitokia edozein dela ere (DBHko 3. mailatik Batxilergoko 2. mailara)

Lanak aurkezteko epea 2021eko azaroaren 19an bukatuko da, eta lehiaketan parte hartzeko lanak ikastetxeek aurkeztu ahal izanen dituzte ikasleen izenean. Bi modu izango dira lanak aurkezteko:

1- Goitizen batez izenpetu beharko dira lanak. Aparteko gutun-azal batean egilearen datuak sartuko dira (izen-abizenak, helbidea, telefonoa, e-posta, ikastetxea, maila eta adina). Gutun-azalaren kanpoko aldean garbi adierazi beharko dira honako hauek: lanaren izenburua, egilearen goitizena eta maila. Euskara zerbitzuan aurkeztu beharko dira.

2-Goitizen batez izenpetu beharko dira lanak. Mezu elektronikoko bat bidali beharko da helbide honetara: larbeleareuskaraz@iparmank.eus, eta datu hauek jarri beharko dira

- Mezuaren izenburua: Mikroipuinak 2021
- Mezuaren edukia: izen-abizenak, goitizena, helbidea, telefonoa, maila eta adina zehaztu beharko, eta artxibo erantsian, mikroipuina, goitizenez sinatuta.

Gaia librea izanen da, eta ez dago luzera mugarik. Sari banaketa abenduan egingen da, ekitaldi publiko batean.

Kontatu zure istorioa, eta animatu parte hartzera!

LARRAUNGO AEK: 2021-2022 IKASTURTEKO IKASTAROEN ORDUTEGIAK

- Hasiera maila zehazteke
- A2 astelehen eta asteazkenetan: 17:30-20:00
- B1 A2 astelehen eta asteazkenetan: 9:15-11:45
- AUTOIKASKUNTZA maila eta ordutegi guztiak

Oraindik ere izena eman dezakezu! ANIMATU ETA IZENA EMAN!

948 604 704 - larraun@aek.eus - Artzanegi 6, Lekunberri.

Antzonia
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antzonia.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZER

634 551 743
infoaralar@gmail.com

MALLOAK
ARTZAI GAZTAK

Granja Martinkoa, GAITZA, Nafarroa
Tel: 649 472 057 - fax: 692 511 057
Malloak.com | info@malloak.com

IDIAZABAL

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe

948 51 31 34

AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15

948 60 47 24

TAXI
SOROA

609 168 217
Bederatzi plaza

urrutia
enea

etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE

ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA

696 658 288
LEKUNBERRI

ce consulting
empresarial

ANA RAMOS MARTÍN

GESTORIA
666 939 332
aramos@ceconsulting.es

GALBURU
okindegia - panadería
Egur-labean egina!

Alde Zaharra 50
LEKUNBERRI
948 50 40 42

▶ AGENDA



AZAROA

05 eta 12 - Autoestimua feminista lantzeko tailerra: Gure buruaren jabe. 17:00etatik 20:00etara Larraungo Gabari gune irekian (Udaletxean), euskaraz, 14 urtetik gorakoentzat, genero guztientzat.

06 - *Escape room* Lekunberrin, Mitxausenean. Egun guztian zehar.

07 - Mendi ibilaldia, *Aralar zaindu dezagun!* Gasbidea hemendik ez!. Astizko plazatik abiatuta, Akittako trikuharria, Ilaorra, Akelar trikuharria, Akelar koba, Larraungo ibaia, Artzanegi, Lekunberriko poligonoa, udaletxea. 10:00etan.

07 - Mendialdeko azoka ibiltaria, Lekunberrin.

07 - Printzan: *Kapitalismoa eta despopulazioa* hitzaldia, 17:00etan.

09 - Erdaldunentzako motibazio saioa. Lekunberriko udaletxeko batzar gelan, 18:30ean.

10 - LekunberriON: Lekunberriko Prestakuntza eta Enplegurako Plan Estrategikoa planaren aurkezpena, udaletxean, 12:30ean.

12 - Printza: proiektuaren aurkezpena. 20:00etan; kantu afaria 21:00etan.

13 - *Escape room* Betelun, Indiano etxean. Egun guztian zehar.

16 - *Biziprest gehiago gara*, Iñaki Alforja Sagoneren dokumentala. Gabari gune irekian, 18:30ean.

19 - *Jesus Mari Oreja 'Oreja II'* liburuaren aurkezpena, Gabari gune irekian, 19:00etan.

20 - Printza: auzolana.

25 - Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna. Manifestazioa Lekunberriko udaletxetik Larraungo udaletxera, 19:00etan. .

26 - Printza: Pleura taldearen kontzertua, 19:00etan.

▶ MERKATU TXIKIA

ESKAINTZA

▶ 118 ale dituen Espasa-Calpe entziklopedia eskaintzen dugu, dohainik. Intereza izanez gero, harremanetan gurekin jarri: 665 211 614

Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka



Herriak egiten du herria



urriak 23 - azaroak 11



errigora.eus

*Saskien balioaren %25 Nafarroa
hegoalde eta erdialdeko
euskaingintzara bideratuko da*

